

# EMAZTE\* LANGILEOK, **BORROKAN!**

**Reconnaître et partager** les activités de soins,  
mettre un terme aux inégalités salariales !

Martxoaren 8a egun nagusia da nazioarte mailan emazteen\* eskubideen aldeko borrokan.

Alde horretatik, LAB sindikatuak grebara eta mobilizatzeraz deitzen du Ipar Euskal Herrian.

Berrito diogu: sistema kapitalista heteropatriarkalak emazteak\* zapaltzen ditu. Gaurko lan mundua langile-klasearen ustiaketa-lekua da; are gehiago emazte\* langileontzat: soldata arrakalak, inposatutako eta jasandako denboraldi partzialak, sektore feminizatuak deitzen direnen baliogutitzea, sexismo sistemikoa, enplegu-diskriminazioa, jazarpenak, eraso sexistak eta sexualak...

Oraindik ere maizegi, emazteek\* beren karrera profesionala sakrifikatzen dute, zaintzarekin dituzten zereginak ziurtatzeko, atsedendien, aisialdiaren, konpromiso politiko eta sozialaren kaltetan, baita lan sarien eta, ondorioz, pentsioen kalterako ere.

Ikusezin bihurtuak, berdin gutietsiak, ordaindutako edo ordaindu gabeko zaintza lanek emazteen\* eskuetan egoten segitzen dute.

Lan horiek profesionalizatu egiten direnean, baliorik gabe uzten dira, eta, maiz, pribatizatuak dira. Horren ondorioz, lanpostu horiek prekarizatu egiten dira, eta herritarrei ematen zaizkien zerbitzuak ahuldu.

Alta, zaintza eta horren ardura duten pertsonak funtsezkoak dira bizitzarako. Horregatik aldarrikatzen dugu zaintza sistema publiko eta komunitario bat, denon esku egon dadin, guztion kontua izan dadin eta langileek lan horiek baldintza duinetan bete ditzaten.

Elkarretaratzeraz deitzen dugu Baionako Herriko Etxearen aitzinean 15:40an, ordu horretatik aurrera emazte langileok kittorik lan egiten dugulako.

Soldata-arrakala sexuaren arabera enplegu eta lanaren banaketa desorekatuaren ondorio da. Emakumeok\* egiten dugun lana baliogabetua dago eta soldata-arrakala egiturazkoa da. Gaur egun, Euskal Herrian ez da soldata berdina irabazten balio bereko lana egin arren; sexuaren arabera desberdina da.

Euskal Herrian antolatuak diren mobilizazio feminista guzietan parte hartzeraz ere deitzen dugu!

**Gora borroka feminista!**

Le 8 mars marque un jour important dans la lutte pour les droits des femmes\* au niveau international.

En ce sens, le syndicat LAB appelle à la grève en Ipar Euskal Herria et à la mobilisation.

Nous le répétons, le système capitaliste hétéropatriarcal opprime les femmes\*. Le monde du travail actuel est un lieu d'exploitation pour la classe laborieuse, il l'est davantage encore pour nous les travailleuses : écarts salariaux, temps partiels imposés et subis, dévalorisation des secteurs dits féminisés, sexisme systémique, discrimination à l'embauche, harcèlement, violences sexistes et sexuelles...

C'est encore trop souvent aux femmes\* de sacrifier leur carrière professionnelle pour assurer les travaux liés aux soins, au détriment de leur temps de repos, de loisirs, d'engagement politico-social, et aussi de leur salaire et donc de leur pension de retraite.

Invisibilisés voire méprisés, les travaux liés aux soins rémunérés ou non restent à la charge des femmes\*.

Lorsque ces tâches sont professionnalisées, elles sont dévalorisées et pour la plupart du temps privatisées. Cela entraîne la précarisation de ces emplois et la dégradation des services rendus à la population.

Or, les soins et les personnes qui s'en chargent sont essentiels à la vie. C'est pour cela que nous revendiquons un système public et communautaire des soins afin que qu'ils soient accessibles à toutes, l'affaire de toutes et que les travailleur-euses assurent ces missions dans des conditions dignes.

Nous appelons au rassemblement à 15h40 devant la mairie de Baiona, heure à partir de laquelle nous, travailleuses, travaillons gratuitement.

L'inégalité salariale résulte d'une répartition inégale et injuste de l'emploi et du travail en fonction du sexe. Le travail des femmes\* est dévalué et l'écart salarial est structurel. Aujourd'hui encore en Euskal Herria, malgré un travail de valeur égale le salaire n'est pas le même ; il est différent selon le sexe.

Nous appelons également à participer à toutes les mobilisations féministes organisées en Euskal Herria!

**Vive la lutte féministe!**

